

## **KOSTU EGITURA:**

Gure enpresak kostu finko zein aldakorrak izango ditu.

Kostu finkoak: Alokairua eta langileen soldatak izango dira funtsean. Gure produktua aurrera eramateko lantegi bat eduki beharko dugu eta lan orduen truke soldata bat eman beharko dugu.

Kostu aldakorrak: Produktua ekoizteko, beharrezko materialak erosi behar ditugu. Horrez gain gure enpresan lana egiten dugun bitartean argindarra gastatuko dugu, hau lanaren arabera izango da. Azkenik gure produktuarentzako materialak erosteko, supermerkatuei gure produktua bidaltzeko, edo beste hainbat gauza egiteko garraioa erabili beharko dugu eta honek baita erabileraren arabera jokatuko du.

Bestalde, ahaleginak egingo ditugu denbora pasa ahala enpresaren kostuak murrizteko; hau ekoizpena handitzean eta kostu finkoak mantentzean lortuko dugu. Honi eskala-ekonomia deritzo.